

BALIOZKO PROPOSAMENA

Gure negozioaren oinarrian osasuna, kirola eta erosotasuna daude. Horregatik, hiru elementu hauek elkartuko dituen produktu berritzaile bat sortuko dugu, bizitza osasuntsu bat mantendu nahi duten pertsonentzat zuzendua.

Lehenik eta behin gure produktua nola eskuratu eta erabili daiteken azalduko dugu. Gure produktua internet bidez eskuratu daiteke, www.mikna.com estekaren bitartez edo denda fisikotan eskuratzeko aukera ere izango duzue. Gaur egun, internet da saltzeko erabiltzen den lehen tresna, baina guk ez dugu salmenta fisikoa alde batera utzi nahi, askorentzat erosoagoa delako.



Gure produktua, kanpotik etxeko edozein armairuren itxura du, baina behin irekitakoan aurki daiteke benetan osasuntsu mantentzen lagunduko duen produktua, hau da, gimnasioa. Alde batetik, armairua itxita dagoenean 1,80mX2mX0,3m neurtzen ditu. Bestetik, behin armairua irekitzerakoan neurriak desberdinak izango dira, esaterako, 1,80mX2mX2,30m izango dira. Armairua irekitzeko eta biltzeko kontrol bat egongo da eskuragarri, nahiz eta, nahiago duenak bere eskuekin ere ireki eta bildu dezakeen.



Behin armairua ireki eta gero, erabilgarri dauden elementuak anitzak dira; esate baterako: 20 eta 15 kilogramoko barrak daude, horiekin hainbat ariketa egin daitezke, besteak beste, sentadillak; bestetik barnekaldetikan zintzilikatzeko barra bat atera daiteke; gimnasioetan egoten diren bankuak ere daude, bularreko ariketak egiteko bereziki; ariketak barrarekin egin ordez, halterekin egiteko aukera ere eskuragarri dago, pisu desberdinetakoak egonez; estera bat ere erabilgarri dago, gehienbat lurrean egiten diren ariketak egiteko; azkenik, gimnasio guzietan bezala ispilu bat ere dago, ariketak egiten ari diren bitartean, bakoitzak bere burua ikusi ahal izateko.

Elementuek 18 hilabetetako bermea izango dute, esaterako, produktuaren barnean dauden elementuetatik baten bat puskatuz gero, kosturik gabeko aldaketa egingo litzateke. Aldaketa egin baino lehenago, materialaren erabilera egokia izan dela aztertu behar da, hala izanez gero, ez zen arazorik egongo. Aipagarria da, piezen aldaketak salgai egongo direla, 18

hilabeteak pasa eta gero arazoren bat egongo balitz, pieza berriak erosteko aukera egongo litzateke.

Lesioak sahieste aldera, gomendagarria izango litzateke egiten diren ariketen teknikak ongi egitea, hortaz, gure produktua edozein mailatan dauden pertsonentzat zuzenduta dagoenez, liburuxka bat egongo da armairuaren barrukaldean, arazo nagusiak sahiesteko eta teknikak egoki egiteko helburuarekin. Gainera, helburu desberdina daukaten pertsonentzat ariketa gomendagarriak ere aurki daitezke. Webgunean ere ariketa berriak egongo dira eskuragarri, bertatik ikusteko aukerarekin.

Gure enpresa nahiko berritzailea da, izan ere, ez daude gure produktua eskaintzen duten enpresa gehiegi. Azpimarratu dezakegu, gure produktuarekin bat datozen elementuek gure enpresa besteengatik bereizten dutela. Alde batetik, hautatu diren makinak edozein maila eta helburu duten pertsonentzat zuzentzen dira. Bestetik, elementuetan kalitatea lehenetsi da, horregatik, kalitate ezinhobea daukate gure makinek. Azkenik, ez dago gure produktuaren antzekoa egiten duen enpresarik, hala nola, 18 hilabeteetako bermea ematen dutenak, hortaz, enpresa oso berritzailea gara.